

Anberes, XVII. mendea:

Andries Danielsen eta
Frans Francken II.aren
Loreontzia tulipekin



Fred G. Meijer

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Argazki-kredituak

© Biblioteca Ambrosiana: fig. 6

© Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: figs. 1 and 8

By courtesy of Fred Meijer: figs. 3, 5, 7 and 11

© Kunsthistorisches Museum, Wien: fig. 10

© Lukas Art in Flanders VZW: fig. 9

© Musées royaux des Beaux-Arts de Belgique, Bruxelles / Grafisch Ro Scan, J. Geleyns: fig. 2

© The State Hermitage Museum, St. Petersburg: fig. 4

Argitalpena:

B'08 : *Buletina* = *Boletín* = *Bulletin*. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 4. zenb., 2009, 121.-127. or.

XVII. mendeko lehen zatian, beharbada Anberes izan zen historiako astoko pinturen ekoizpen-zentro handiena. Hiriko tailerretan, tamaina eta gai guztietako margolanak egiten zituzten. Lanen kalitatea ere askotarikoa zen: nazioartean ospea zuten maisuek egindako garaiko arte original eta berritzaileena eta asteko azoketan prezio murriztuan saltzeko seriean margotutako kopia soilak eta lan apaingarriak. Zentro artistiko gehienetan gertatu ez bezala, Anberesko margolariak lankidetzapean lan egiten zuten sarritan, eta zenbait motibo zein gaitan espezializatutako artisten artean banatzen zuten lana. Margolan asko bi artista-
ren edo gehiagoren lanaren emaitza dira.

Ondoren, Andries Danielsek eta Frans Francken II.a irudi-margolariak tulipaz eta beste lore batzuek bete-
ta egin zuten loreontzidun natura hila aztertuko dugu. Fransek, hain zuzen ere, loreontzia apaindu zuen. Bilboko Arte Eder Museoak margolana erosi berri du [1. ir.]. Hamarkada haietan Anberesen margotutako lore-
irudikapen ugarien artean kokatzen da margolana.

Metalezko loreontzi apaindua egurrezko mahai soilaren gainean dago, eta lore-sorta trinkoa du barruan. Lore horien artean, kolore distiratsuko tulipak nabarmentzen dira. Indioilar tximeleta (*Inachis io*) ezkerraldean dago, eta badirudi goiko aldean dauden loreei begira dagoela, hegan egiteko eta petaloen gainean pausa-
tzeko prest. Bien bitartean, marigorringoa loreontziaren eskuinaldean dabil hara eta hona. Konposizioan, zuriak eta gorridun zein purpuradun krema-zuriak diren hamar tulipa daude. Eurekin batera, lore txikiagoak ere badaude: lirioak, hiazintoak, lilipa bikoitzak, *leocojum*, lore papilionazeoa (*cassia fistula*, seguruenik), zenbait bariatetako anemonak, erromeroa, sagarrondo-lorea, oroiloreak eta beste txikiago batzuk. Ondo baino hobeto daude irudikatuta. Argi eta garbi dago artistak xehetasunez, banan-banan aztertu zituela.

* Eskerrik asko Beth Vogeli, ingeleseko testua zuzentzeagatik; eta Magdalena Kraemer-Nobleri, zenbait ohar erabilgarri egiteagatik.



1. Andries Daniels (1599 eta 1640. urteen artean edo geroago aktibo); Frans Francken II (1581-1642)
Loreontzia tulipekin, 1620-1625
Olioa oholean. 55,6 x 40,7 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 08/220

Horrelako lore-sorta, ordea, ez zegoen XVII. mendeko benetako bizitzan ikusterik, margolanean irudikatutako espezieak ez daudelako loretan urtaro berean. Gehienak udaberrikoak dira, baina oroiloreak, esaterako, ez dira udaberriaren amaierara arte edo udara arte loratzen. Horrez gain, lore txikiak ezin ziren loreontziaren hondoraino iristeko bezain luzeak izan. XVII. mendean, margolariek banan-banako loreak marraztu edo margotzen zituzten sarritan edo beste iturri batzuetatik kopiatzen zituzten, eta eredu horiek erabiltzen zituzten, mihise, ohol edo kobrezko xaflen gaineko konposizioak egiteko. Horren ondorioz, lore-sortetan zenbait urtarotako loreak agertzen ziren sarritan, margolan honetan bezala. Era berean, antzeko irudikapenak azaltzen dira artista beraren zenbait margolanetan edo zenbait artistaren margolanetan.

Margotutako tulipak

XVII. mendetik, honelako lanei balio handia eman diete euren sinesgarritasun eta leialtasun botanikoagatik. XVI. mendearen amaieran, lorategi-zaletuen eta lorategi botaniko berriak garatzen ari ziren botanikari profesionalen artean, baratzezaintzaren inguruko interesa sortu zen. Mundu zabalean zehar bidaiatzen zuten merkataritzako flotek Europara espezie berriak zekartzatenez, laster laborantza eta hibrido berriak sortu ziren Kontinente Zaharreko lorategietan. Lorategia edukitzea gizarte-mailaren adierazgarri zen, espezie asko oso garestiak baitziren eta oso preziatuak ziren bildumagileen artean. XVII. mendearen hasieran, loreei buruzko margolanak ugaltu egin ziren, barietate ugariak jakin-mina sortzen zutelako eta, olio-pinturan irudikatutakoan, urte osoan gozatzeko aukera eskaintzen zutelako.

Gaur egun, tulipa Holandako sinbolo nazionala da, baina lore hori ez zuten Europako iparraldera ekarri XVI. mendeko hirugarren laurdenera arte. Lehenago, Turkiara bidaiatzen zuten mezulari eta merkatariek Vienako Habsburgotarren gortera ekarri zituzten. Inork ez daki zehatz-mehatz tulipak nola eta noiz heldu ziren lehen aldiz Herbehereetara. Seguruenik, Flandesko Carolus Clusius botanikariak (1526-1609) lorea lehen aldiz ikusi zuen Vienan, 1573. eta 1577. urteen artean, Maximiliano II.a enperadorearen gortean botanikari lan egin zuenean. Tuliparen landarea deskribatu zuen lehena izan zen, 1583an argitaratutako *Rariorum aliquot stirpium, per Pannoniam, Austriam [...]* lanean. Nolanahi ere, Clusius ez zen 1588ra arte Herbehereetara itzuli, eta, orduan, tulipak Anberesko lorategietan nahiz beste leku batzuetan loratzen ziren. Clusiussek berak 1583an aipatutako eta egiaztatu gabeko historiaren arabera, Malinasko oihalen merkatarik batek tulipa-erraboilak jaso zituen Flandesen, Konstantinoplak zetozen oihalekin nahastuta. Tulipak zirelakoan, zenbait ebakitzeko eta frijitzeko agindu zuen, eta olio-ozpinez onduta dastatu zituen. Gustuko izan ez zituen, gainerako erraboilak lorategian utzi zituen. Bertan, botanikako jakintzak zituen Anberesko lankide batek ikusi zituen, tulipa-erraboilak zirela konturatu zen eta Anberesera eraman zituen. Kristalezko loreontzian sartuta tulipak dituen lore-sorta bat agertzen da Antonius Anselmusen eta bere familiaren talde-erretratuko irudien artean. Margolan hori Martin de Vosek egin zuen Anberesen 1577an [2. ir.], eta, seguruenik, Herbehereetan margotutako lehen tulipa-irudia da¹.

1630etik 1635era, tulipa-erraboilaren inguruko espekulazio finantzarioa hain handia izan zenez, erraboil bakar batek Amsterdameko hiriko kanaletako baten gainean eraikitako etxe osoak besteko balioa izan zezakeen. 1637an, merkatuak gainbehera egin zuenean, jende askok bere inbertsioak galdu zituen, eta sosik gabe geratu ziren. Herriak halaxe adierazi arren, ez da egia tulipek euren balioa zeharo galdu zutenik. Funtsean, jendeak lore hori preziatzen jarraitu zuelako. Tulipadun natura hil loretsuek balioespen ona zuten artean, eta merkatuaren gainbeherak ez omen ziren inolako ondorio kaltegarrikerik eragin, inoiz iradoki duten bezala.

¹ Sinatua eta datatua. Lore-sorta margolanean geroago erantsi ez bada –nire ustez, ez da halakorik gertatu–, egiaztatu egin daiteke tulipak ezagunak zirela eta modan ere bazeudela Anberesen 1577. urtean. Nire informazioen arabera, inguruabar hori ez du inork orain arte aipatu. Tulipek Herbehereetan duten historiari buruz, ikus Goldgar 2007, beste argitalpen askoren artean.



2. Martin de Vos (1532-1603)
Antonius Anselmusen, Joanna Hooftmans emaztearen,
eta Gillis eta Joanna seme-alaben erretratua, 1577
 Olioa oholean. 103 x 166 cm
 Belgikako Arte Ederretako Erret Museoak, Brusela
 Inb. zenb. 3689

Gaur egun ez dago margolan honetan azaltzen den bezalako tuliparik. Joan den mendearen hasieran, petaloen ertzetako efektua, bildumagileen lore preziatuak bihurtzen zituzten marrazki zoragarriak zerk sortzen zituen aurkitu zuten, hau da, «tuliparen mosaikoaren birusa» edo TBV (*Tulip Breaking Virus*). Haren eragin apetatsuak direla-eta, marrazki eta ertz desberdinez egindako eredu berriak agertzen ziren etengabe. XVII. mendeko lore-zaleek tulipa-espezie guztiak bataiatu zituzten. Izan ere, seihun inguru barietate ere zenbatu zituzten, eta oso izen bitxiak zituzten; esate baterako, Van Gouda jenerala, Pochertje (alproja txikia), Erregeordea edo Van der Eyck almirantea. Birusak tulipa-landareak eta beste batzuk kaltetu zituenez, debekatu egin zuten landatzea. Gaur egun, era artifizialean sortutako antzeko marrazkidun barietate batzuk landatzen dira, baina XVII. mendeko lore-margolanetan azaltzen diren espezie ugariak ez daude gaur egun.

Bilboko Arte Eder Museoko tulipadun loreontzia 1637ko gainbehera baino askoz lehenago margotu zen. Xehetasunez aztertu ondoren, baieztatu egin daiteke Andries Daniels eta Frans Francken Gaztea margolari anberestarrek batera egindako lana dela, eta, seguruenik, XVII. mendeko hogeiko hamarkadako lehen zatian margotu zuten². Danielsek lore-sorta margotu zuen; eta Franckenek loreontzia apaindu zuen.

2 Hasiera batean, margolan honetako loreak Anberesko beste artista batenak zirela esan nuen: Philippe de Marlier (c. 1600-1667/1668). Gainera, 1640. urtearen ingurukoa zela adierazi nuen. Marlier azkar-azkar finkatu zen lore-margolari moduan, 1635. urtetik 1640ko hamarkadaren hasierara arte. Badirudi margolan hau Brueghelen imitazio zakarretako bat zela eta hogeita hamarreko hamarkadan egin zela. Pieza finenak, ordea, Daniel Seghers lanean zeuden inspiratuta, eta berrogeiko hamarkadakoak ziren. Bilboko Arte Eder Museoak Marlierrena eta Franckenen zelakoan erosi zuen margolana, baina lan hau prestatu bitartean, nahitaez onartu behar izan nuen Marlierren gainerako lanekin bat ez zetorrela eta Franckenen ekarpena –loreontziaren apaindura– 1640. urtearen inguruan datatzea ere zuzena ez zela.

Andries Daniels (jardunean 1599. eta 1640. urteen artean edo geroago)

Oso gutxi dakigu Andries Danielsen bizitzari buruz. Ez dakigu non eta noiz jaio zen. Bere izena Anberesko margolarien kofradiako liburu nagusian agertu zen 1599an, eta, bertan adierazitakoaren arabera, Pieter Brueghel Gaztearen ikaslea zen (1564-1638). Hiru urte geroago, 1602an, irakasle oso moduan eman zuen izena³. Hurrengo hamarkadetako uneren batean, margolaria Jozijnke van der Hoerstekin ezkondu zen, 1640ko uztailaren 25ean batera egin baitzuten testamentua⁴, eta, seguruenik, geroxeago hil zen Daniels. Dena dela, baliteke beste zenbait urtez bizi izana⁵, baina ez dakigu. Hala ere, agiri horren arabera, jakin badakigu 1640ko uztailaren bizirik zegoela. Gaur egun, Anberesko artxiboetan ez dute margolariaren bizitzari buruzko beste agiririk aurkitu (ez aurrekorik ez ostekorik).

Bere bizitzako datuak bezala, Danielsen lanak ere urriak dira. Oro har, lore-margolaritzat hartzen bazuten ere, beste gai batzuk lantzen hasiko zen seguruenik. 1599an, Daniels Pieter Brueghel II. arekin ikasten ari zenean, loredun natura hilak *status nascendin* zeuden genero moduan. Bere irakaslea genero-margolaria zen, eta Bibliako eszenak ere margotzen zituen. Gehienak, gainera, bere aita ospetsuaren, hau da, Pieter Brueghel Zaharraren lanen kopiak edo parafraasiak ziren. Bere tailerrean, horrelako lan asko egin zituzten. Sarritan, errepikapen ugariak ziren, eta bere izenpean saltzen zituen, nahiz eta oso esku desberdinen emaitza izan⁶. Artista honek lore-margolan gutxi egin zituen, egiaztatu egiten da Daniels talentu eta trebetasun handiko margolaria zela. Seguruenik, Bruegheldarren imitatzailaetako bat izan zen hasieran, eta Pieter Gazteak berak kontratatu zuen genero-eszenak eta mihise historikoak margotzeko edo ekarpenak egiteko, behintzat.

Andries Danielsek gaur arte onartu eta sinatutako lehen margolana eta bakarra medailoiaren inguruko lore-girlanda da, eta, bertan, Familia Sakratua zein aingeruak daude irudikatuta. Margolana XX. mendeko erdialdean agertu zen [3. ir.].⁷ Bilboko margolana bezala, Danielsen eta Frans Francken II. aren arteko lankidetzapeko lana da, eta Fransek erdiko irudia margotu zuen. Sinatutako mihise hori 1951n argitaratu zen lehen aldiz, Marie-Louise Hairs arte-historialari belgikarrak idatzitako artikuluan. Izan ere, sinadurarik gabeko zenbait pinturarekin ezarri zituen loturak⁸. Gaur egun, ia-ia berdin-berdina den girlanda daraman beste margolan bat dago San Petersburgoko Hermitage Museoan, baina, kasu honetan, Jacob Jordaensen Andre Mariaren eta Umearen inguruan dago girlanda [4. ir.]. Antzekotasun horren arabera, 1966a baino lehen Ingvar Bergströmek San Petersburgoko margolaneko loreak Danielsek egin zituela esan zuen. Edonola ere, banan-banako loreak nola egin ziren sakon aztertuz gero, egiaztatu egiten da aldeak daudela sinatutako margolana margotzeko moduarekin⁹. 1951ko artikuluan, Hairssek ere adierazten du oholaren lau izkinetan lau apostoluak dituen Andre Mariaren bizitzako irudien konposizio konplexuarekin nahastutako girlanda Andries

3 Rombouts/Lerius 1872 (1961), I. lib., 408. eta 418. or.

4 *Algemeines Künstler-Lexikon...*1992-, 24. lib. (2000), 149. or.

5 Ia-ia ohikoa zen testamentua egitea ezkontideetako bat oso gaixo eta hilzorian zegoenean. Ez dut agiria ikusi eta ez dakit zehatz-mehatz kasua horixe izan zen ala ez.

6 Gaiari buruz, ikus erakusketa honetako katalogoa: Maastricht/Brusela 2001.

7 Margolana Suitzako Luzernako Boehler & Steinmeier galerian agertu zen lehen aldiz, 1950ean. 1954an, New Yorkeko Newhouse Galleriaren zegoen, eta, 1967an, azken aldiz ikusi zuten Bergamoko Lorenzelli galerian.

8 Hairs 1951, 175-179. or. Norena den iradokitze kontuan hartutako margolanetako bat Anberesko Santiago elizan dago. Bertan, Andre Maria eta Umea agertzen dira, eta ia-ia sinatutako margolanen azaltzen den bezalako da inguruan duten lore-girlanda. Zoritxarrez, Hairsen artikuluko ilustrazio txikiaren bidez ezagutzen dut margolan hori (2. fig.), eta ez du behar besteko kalitate, iradokizuna zuzena den ala ez bermatzeko. Nolanahi ere, betearazpenak antz handia du sinatutako margolanekoarekin. *Les peintres flamands de fleurs au XVIIe siècle* (Hairs 1985) lanaren hirugarren edizioarekin argitaratutako katalogoan, autore honek Danielsen omen ziren hamahiru margolan ere aipatu zituen. Era berean, AD inzialak irakurtzeko moduan erakusten omen zituen 1610eko loredun loreontzia ere aipatu zuen, baina ez dago inolaz ere lotzerik artistaren sinadura osoa daraman girlandarekin.


9 Gutxienez, lore-girlanda beraren beste bi irudi gehiago daude, zenbait medailoien inguruan. Euretako bat Klaus Ertzek (Ertz 1984, 299a kat., ir.) argitaratu zuen Jan Brueghel Gaztearen lan moduan, eta, ondoren, horrelaxe sartu zen Londresko Sotheby'seko salmenta-katalogoan, 2005eko uztailaren 7an (105. lotea, ir.). Bertsio ezagunetatik, badirudi margolan honek lotura handiagoa duela Danielsen bertsioarekin, baina, kasu honetan ere, ez dut esango norena den. Girlandaren kopia txar samarra jarri zuten salgai Hampelen, München, 2007ko martxoaren 23an (468. lotea, ir.).



3. Andries Daniels (1599 eta 1640. urteen artean edo geroago aktibo); Frans Francken II (1581-1642)
Lorez egindako girlanda bat, Familia Sakratuaren eta aingeruen irudi baten inguruan, c. 1618
 Olioa oholean. 105 x 75 cm
 Une honetan daukan kokapena ezezaguna da



4. Andries Daniels jarraitzailea (1599 eta 1640. urteen artean edo geroago); Jacob Jordaens (1593-1678)
Andre Maria eta Umea, lorez egindako girlanda batean, c. 1618
 Olioa oholean. 104 x 73,5 cm
 The State Hermitage Museum, San Petersburgo
 Inb. zenb. GE-2041



5. Andries Daniels (1599 eta 1640. urteen artean edo geroago); Frans Francken II.aren tailerra (1581-1642)
Andre Mariaren bizitzako eszenak, lorez egindako girlanda batez eta lau apostoluen irudiez inguratuta, c. 1618
 Olioa oholean. 123 x 92 cm
 Une honetan daukan kokapena ezezaguna da



6. Jan Brueghel Zaharra (1568-1625); Hendrik van Balenen jarraitzailea (1575-1632)
Andre Maria Umearekin, lorez egindako girlanda batean, c. 1608
 Olioa kobrean. 27 x 22 cm
 Biblioteca Ambrosiana, Milan



7. Andries Daniels (1599 eta 1640. urteen artean edo geroago aktibo); Frans Francken II (1581-1642)
Lorez egindako girlanda bat, Familia Sakratuaren eta aingeruen irudi baten inguruan, c. 1618
 Olioa oholean. 105 x 75 cm
 Une honetan daukan kokapena ezezaguna da
 Xehetasunak



8. Andries Daniels (1599 eta 1640. urteen artean edo geroago aktibo); Frans Francken II (1581-1642)
Loreontzia tulipekin, 1620-1625
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Xehetasunak

Danielsena izan daitekeela [5. ir.]¹⁰. Girlandan, sinatutako girlandan erabilitako lore eta lore-konbinazio asko azaltzen dira, eta betearazpen arinak lotura handia du mihise honetan irudikatutakoarekin.

Hairsek Milango Liburutegi Anbrosiarrean Andre Mariaren eta Umearen inguruan dagoen lore-girlanda Danielsena dela badio ere [6. ir.], ez da batere sinesgarria. Lehenago, ordea, lan bera Jan Brueghel Zaharrarena zela adierazi zuten. Xehetasunez erkatuz gero, loreetan antzekotasun formala badago ere, alde argia dago bi girlandetako loreen irudikapenean. Hairsek 1951n egindako iradokizunez gain, azken berrogeita hamar urteotan, Jan Brueghel Zaharraren erara –eta, batzuetan, Osias Beerten erara– egindako lore-sorta eta girlanda ugari Danielsenak direla esan dute, nahiz eta beraien estiloa 3. irudiko margolan sinatukoarekin bat ez datorren –askoz txarragoa delako–¹¹. Bilboko Arte Eder Museoko lore-sortan, oster, Danielsek sinatutako margolanean dauden zenbait tulipa agertzen dira, eta, xehetasunez alderatuz gero, egiaztatu egiten da bien estiloa ia-ia berdina dela [7. eta 8. ir.]. Hartara, ez dago inolako zalantzarik: Bilboko tulipak mihise sinatua egin zuen artista berak margotu zituen; Andries Danielsek, hain zuzen ere.

10 Hairs 1951, 177. or., 3. ir. Margolana Koetserren, Londresen, egon zen 1946. urtearen inguruan, Daniel Seghersena eta Frans Franckenena zelakoan. Gero, berriro irten zen Bruselako Palais des Beaux-Artseko enkante batean, 1983ko azaroaren 26tik 27ra (1073. lotea), Jan Brueghel Zaharraren jarraitzaile batena zelakoan. Kalitate oneko zuri-beltzeko argazkiaren bidez baino ez dut ezagutzen margolana.

11 Antzeko margolan asko ere Philippe de Marlierrenak zirela esan zuten.

Frans Francken II.a (1581-1642) eta bere tailerra

Era okerrean Danielsi egotzitako zenbait girlandaren inguruan Frans Francken II.ak batzuetan sinatutako edo bere erara margotutako irudi nagusiak agertzen direnez, margolan horiek Franckenen tailerrekoak direla esan daiteke. Seguruenik, hori baliagarria da Franckenek edo Franckenen erara egindako medailoidun loreontzien barruko lore-sorta uniforme ugarietarako.

Daniels ez bezala, Frans Francken Gaztea oso margolari ezaguna eta dokumentatua da XVII. mendean Anberesen lan egiten zuten artisten artean¹². 1581eko maiatzean hirian bataiatu zuten, Francken Andries Danielsen garaikidea zen gutxi gorabehera. Anberesko artista-familia nabarientakoaren parte zen. Aitak, eszena historikoak margotzen zituen Frans Francken Zaharrak (1542-1616), irakatsi zion, eta giza irudien margolari oparoa izan zen. Hain zuzen ere, era guztietako gaiak irudikatzen ausartu zen: Biblia, mitologia klasikoa, landa-eszenak, goi-gizarteko bizitza eta bildumagileen kabinetek. Askotan, irudiak margotu zituen beste artista batzuek egindako paisaia eta barne-eszenetan, eta, urteen joan-etorrian, zenbait kargu garrantzitsutan egon zen Anberesko margolarien kofradiako batzordean. Bere estiloa dotorea, manierista samarra da, eta betearazpena kalitate handikoa. Dena dela, biak oso pertsonalak dira, eta erraz antzematen dira. Francken oso margolari nabaria izan zen garai hartako Anberesko mundu artistikoan, bai eta enpresari arrakastatsua ere. Merkatu sofistikuagorako margolan sinatuak egiteaz gain, badirudi tailerra ere zuzentzen zuela eta talentu gutxiagoko zenbait artistari eman zien lana bertan, hain zorrotza ez zen merkaturako margolanak egiteko. Erdian irudiak dituzten girlanda eta loredu loreontzi ugariak eta Franckenek era partzialean egindako loreontziak bere tailerretik datoz seguruenik¹³. Hala ere, Francken erara margotu zirela esan beharra dago, eta, azken hirurogei urteotan, Andries Danielsenak direla esan dute, eta ez da horrela. Gaur egun ezagunak diren lan urrietatik –lankidetzan eginekoak– atera ditzakegun ondorioen arabera, Andries Daniels, Franckenen langileen artean, talentu handienekoa zen. 3. irudiko margolana sinatzeak egiaztatzen du laguntzaile pribilegiatua zela. Baliteke Danielsek girlanda hau sinatu izana bere asmakizuna izan zelako. Halaxe izanez gero, beste bertsioak tailerreko beste artista batzuen lanak izango lirateke; izan ere, Franckenen tutoretzapean margotzen zuten, ez zuten margolanak sinatzeko eskubiderik¹⁴.

Franckenen eta Danielsen arteko lankidetzak

Andries Daniels maisu independente egin zen 1602an, eta Frans Francken, 1605ean. Beraz, bien arteko lankidetzak edozein unetan sortu ahal izan zen 1605. urtetik 1642. urtera (epealdi hori bat dator Franckenek maisu moduan garatutako jarduerarekin) edo 1605etik 1640ra (Daniels testamentua egin eta handik gutxira hil zela kontuan hartuta). Edonola ere, gutxi gorabeherako data ezarri dezakegu, egoeraren arabera zenbait frogak kontuan izanda. Artista moduan garatu zuen lan-ibilbidean zehar, Frans Franckenek bildumagileen kabinetetako zenbait lan margotu zituen: margolan horiek margolanen benetako edo irudimenezko bilduma erakusten diete ikusleei, eta, sarritan, beste gauza bitxi batzuekin nahasten dituzte: maskorrak, marrazkiak, eskulturak eta arteko zein naturako beste produktu batzuk. Batzuetan, artelanak suntsitzen ari diren mardoen taldea agertzen da atzeko aldean. Animalia horiek objektu artistikoen kalitatea eta garrantzia ikusteko eta preziazteko gai ez diren masa ezjakinen sinboloak dira. 1618an eta 1619an datatutako horrelako lan bat

12 Franckeni buruz, ikus Härting 1989.

13 Etorrizunean, Ursula Härtingen laguntzaz, margolan-talde honen historia argituko dudalakoan nago.

14 Romboutsek eta Van Leriusek argitaratutako Anberesko kofradiako artxiboetan (ikus 3. oharra), artista ugariaren izenak agertzen dira, baina ezin dira margolan ezagun batekin ere lotu. Baliteke batzuek inoiz euren artista-prestakuntza (oso zorrotza) amaitu ez izana. Dena dela, askok, seguruenik, era anonimoan lan egin zuten Franckenen eta beste batzuen tailerretan, eguneroko merkaturako enkarguak egiten, benetako handinahi artistikorik gabe.



9. Frans Francken II (1581-1642)
Bildumagilearen kabinetea, 1619
 Olioa oholean. 56 x 85 cm
 Koninklijk Museum voor Schone Kunsten, Anberes
 Inb. zenb. 816

dago gaur egun Anberesko Arte Eder Museoko fondoetan gordeta; bertako leku nabari batean Andre Maria-ren, Umearen eta aingeruen margolan bat dago eta antz handia dauka 3. irudiko lankidetzapeko lanarekin [9. ir.]¹⁵. Proportzioak desberdinak izan arren –Anberesko margolaneko irudi nagusia handi samarra da–, girlandaren konposizioa ia berdina da. Bere kabineteko piezako girlanda egiteko, Franckenek lehendik zegoen margolan bat eredutzat hartu izan balu, Danielsek sinatutako girlanda 1618. urtearen inguruan edo lehenago egin bide zela esan genezake. Franckenek pinturan egindako ekarpenaren tratamendua eta estiloa bat datoz data bereko, hau da, 1618ko beste lan batekin. Beraz, hipotesia egiaztatzen da. Horrez gain, kabineteko margolanean lorez betetako loreontzi apaindua ere agertzen da, eta nolabaiteko antza du Bilboko natura hileko loreontziarekin. Lore-sorta, ostera, zeharo inspiratuta dago Jan Brueghel Zaharrak 1609. urtearen inguruan egindako konposizio batean [10. ir.]¹⁶.

Bilboko loredun loreontzia girlanda baino geroxeago egingo zen, seguruenik. Frans Franckenen loreontziaren apainduraren berezko betearazpena bat dator artistak hogeiko hamarkadako lehen zatian egindako lanekin¹⁷. Lore-sorta zein loreontzia kalitate handikoak dira, 3. irudiko margolanekoa baino kalitate handiagokoak,

15 Margolana honelaxe dago sinatuta eta datatuta: «F.Franck . IN/ 1619». Hala ere, 1618ko data ere agertzen da liburu bateko eskuinaldeko beheko aldean. Museoak epe luzerako utzi dio mailegupean Anberesko Rubenshuisi (Rubensen Etxeari).

16 Bildumagileen kabinetetarako beste irudikapen batzuetan, Franckenek loredun loreontziak margotu zituen, eta are antz handiagoa dute Vienako Brueghelen margolanarekin. Izan ere, portzelanazko loreontzi bera darabilte, baina seguruenik Brueghelen irudimenaren emaitza da eta ez lehendik zegoen objektu fisikoaren irudikapena.

17 Eskerrik asko Ursula Härtingi, 2008ko azaroaren 23ko mezu elektronikoan horixe egiaztatzeagatik.



10. Jan Brueghel Zaharra (1568-1625)
Lore-sorta, loreontzi urdin batean, c. 1609
 Olioa oholean. 66 x 50,5 cm
 Kunsthistorisches Museum, Gemäldegalerie, Viena
 Inb. zenb. GG 558



11. Andries Daniels (1599 eta 1640. urteen artean edo geroago aktibo); Frans Francken II (1581-1642)
Lore-sorta, dekoratutako metalezko loreontzi batean, c. 1625
 Olioa oholean. 60,5 x 45,8 cm
 Une honetan daukan kokapena ezezaguna da

alegia. Merkatu zorrotz eta sofistikuenerako pieza dela esan dezakegu. Hori dela eta, ulertzeko modukoa izango zen sinatuta egotea, baina ohola ez dago sinatuta¹⁸. Era okerrean Danielsi egotzitako lanen aldean, lore-sorta hau bizitako konposizio naturala da, eta meritu artistiko eztabaiaezina du. Antzeko kasuetan, geure buruari galdetzen diogu talentu itzaliko, gutxiagoko artista bakarraren sormen-etzandaren emaitza den ala talentu handiko artistaren antzeko beste lan batzuk galdu diren.

Beste lore-margolan bat dago –antzeko kalitate artistikoa du–, eta Daniels zein Franckenekin eduki dezake zerikusia [11. ir.]¹⁹. Neurri batean, badirudi beste margolan horren konposizioa Franckenen Anberesko *Bildumagilean kabinetean* laneko lore-sortarekin lotuta dagoela, eta horren bidez, Vienako Brueghelen konposizioarekin. Alde horretatik, Bilboko Arte Eder Museoko lore-sorta lan originalagoa da, dirudienez konposizioa ez delako aurretiko elementuetan oinarritzen. Bilboko tulipen aldean, 11. irudiko margolaneko tulipa bat ere ez da sinatutako girlandakoak bezalakoak. Hala ere, modelatua eta betearazpena ia berdinak dira. Nolanahi ere, ezin konta ahala lore daudenez, tulipak ez dira Bilboko margolanen bezala nabarmentzen. Bilboko lore-oholaren ostean, Danielsen garapen artistikoan gertatutako hurrengo urratsa izan liteke inolako arazorik gabe.

18 Uneren batean, euskarria kazoztatu egin zuten. Horren ondorioz, ez dago inolako daturik oholaren atzealdean. Ez dirudi oholaren tamaina murriztu denik, baina kazoztaduraren ondorioz ez dago datu hori zehatz-mehatz egiaztatzerik. Teorian, oholak beheko aldeko tira kaltetuta egoteagatik galdu bazuen, zati galdu horretan egongo zen Danielsen sinadura.

19 Margolana Jan Brueghelena omen zen Sotheby'sek Londresen 1990eko abenduaren 12an egindako enkantera arte. Bertan, hain zuzen ere, 8. lotea aurkeztu zuten (ir.). Amsterdameko Sam Segal doktoreak ez ezik, era independentean nik neuk ere esan nuen margolana Philippe de Marlierrena zela. Hartara, margolanaren arabera, Bilboko lore-sorta Marlierrena zela esan nuen hasiera batean (era berean, ikus 2. oharra). Lan hau prestatzen nuen bitartean, ordea, margolan hau Andries Danielsena ere izan behar zela konturatu nintzen.

Esangura ezkuturik?

XVII. mendeko kulturak balio sinbolikoa ematen zien loreei, epe laburrean loratu eta zimeldu egiten direlako. Loreen bizitza laburra giza-bizitzaren laburtasunaren sinboloa zen; eta kolore nabariak, lurreko bizitzaren handikeria sinboloak. Horrez gain, espezieen kopuru mugagabea eta lore-barietate harrigarria Jainkoaren ahalguztiduntasunaren adierazgarri ziren. Gainera, Lur elementuaren sinboloak ere izan zitezkeen –bertatik sortzen baitira–, lau elementuen irudikapenetan, multzoan Sorkuntza gorpuzten zuten-eta. Testuinguru horretan, Franckenen loreontzian, itsasoko ninfak Neptuno Jainkoa koroatzen dueneko irudia Ur elementuaren figurazioa izan daiteke margolan honetan. Horrela ikusita, lau elementuak agertzen dira margolanean: Lurra- ren adierazgarri diren loreak; Airearen sinbolo diren intsektu hegalaria; Suaren adierazgarri den metalezko loreontzia, elementu horren produktu moduan; eta bere apaindura, Ura.

Dena dela, ezeren gainetik, margolan hauek ikusmenerako oparia dira. Lore-konposizio hauek sortu zitue- nean, artista bere lan-ibilbideko une gorenean zegoen, inolako zalantzarik gabe. Bilboko lore-margolana ilusionismo-alardea da erabat: inolako ahaleginik gabe, hiru dimentsioko loreontziaren aurrean gaudela pentsa dezakegu, haritzeko ohol baten gainazal lauan arreata handiz lekuratutako olio-kolore ugariak bakarrik ikusi beharrean.

BIBLIOGRAFIA

Allgemeines Künstler-Lexikon... 1992-

Allgemeines Künstler-Lexikon. Die bildenden Künstler aller Zeiten und Völker. München : Saur, 1992- .

Ertz 1984

Klaus Ertz. *Jan Brueghel der Jüngere (1601-1678) : die Gemälde mit kritischem Oeuvrekatalog.* Freren : Luca, 1984.

Goldgar 2007

Anne Goldgar. *Tulipmania : Money, Honor, and Knowledge in the Dutch Golden Age.* Chicago : University of Chicago Press, 2007.

Hairs 1951

Marie-Louise Hairs. «André Daniels : peintre de fleurs Anversois : vers 1600», *Oud Holland*, The Hague, 66. zenb., 1951, 175.-179. or.

Hairs 1985

—. *Les peintres flamands de fleurs au XVIIe siècle.* Bruxelles : Lefebvre et Gillet, 1985.

Härting 1989

Ursula Alice Härting. *Frans Francken der Jüngere (1581-1642) : die Gemälde mit kritischem Oeuvrekatalog.* Freren : Luca, 1989.

Maastricht/Brusela 2001

De Firma Brueghel = The Bruegel enterprise. [Erak. kat., Maastricht, Bonnefantenmuseum; Brusela, Koninklijke Musea voor Schone Kunsten van België- Museum voor Oude Kunst]. Ghent : Ludion, 2001.

Rombouts/Lerius 1872 (1961)

Philippe Félix Rombouts ; Théodore van Leries. *De Liggeren en andere historische archieven der Antwerpsche Sint Lucasgilde = Les Liggeren et autres archives historiques de la Gilde Anversoise de Saint Luc.* 2 libk. Faks. ed. Amsterdam : N. Israel, 1961 (1. ed., Anberes, 1872).